

Ezusteko argonautak - Erreseina

Denok izan gaitezke, lehenago edo beranduago, argonauta. Guztiok izan dugu noiz edo noiz hegan egiteko beharra, eta horrexegatik abiatu gara aske izaten lagunduko digun zera horren bila, nahiz eta jakitun izan ibilaldia korapilatsua izango dela edo xedea lortzea amets soil bat besterik izateko aukera egiazkoa dela. Ezustean edo ezagueraz, gizaki guztion patua da hutsuneren baten ondorioz, estalkiaren bila abiatzeko beharra. Eta oraindik halakorik bizi ez duenik balego, ez da greziar heroi bat delako, ezpada zorionaren hegoak oraindik ondo itsatsita dituelako.

Bidaia bat, bizitza bera, berezko arrisku eta heldulekuekin, suzkoa eta aldi berean izotzezkoa. Norabidea finkatu behar izaten dugu, baldin eta bizitza bizi nahi badugu: aurretik atzera ala alderantziz. Jomuga betiere artearen adar erorietan eskegitako urrezko ardi-larrua izango da, amestutako zoriona bera. Jasonekin batera Argo ontzian itsasoratutako heroien antzera, zailena ez da Kolkidara iristea, edo dena delako tokira, bila gabiltzan hori zaintzen duen herengusea akabatzea baizik, inoiz lorik egiten ez duen munstro madarikatua, alegia.

Ibilbidearen hastapena zergatia argitu nahi izatea da, erantzun baten beharra. Bilaketa horretan errotuko ditu Jose Mari Zendoia poetak hamabi ataletan banaturiko poemak. Eta baliteke atal kopurua ausazkoa ez izatea, Herkulesen lanekin bat egiten baitu. Bilaketaren bidaian, bada, bidea ardatz bihurtzen da. Zerbaiten bila hasterakoan, zerbait ahazteko zorian gaudela ohar gaitezke, baita etxea urrun geratzen ari zaigula ere.

Ezjakintasunetik abiatzea oso nekeza izan daiteke, baina baita izugarri ekintza ausarta ere, geldirik egotea baita beldurraren aurkako erantzunik erosoena. Bakardadea partekatzeak argonauta bihurtzen gaitu, ontzi berean denok, metropoli berean guztiok, etxe berean biok. Kaier zurietan zirriborraturiko zalantzak eta ziurtasunak agerian jartzea norbere gabezia bistaratzeko ariketa ona izan daiteke, baina baita arriskutsua ere, oihu egitera behartu gaitzakeelako, hitzek infernua deskriba dezaketelako.

Egongela berean liburuak eta loa parteka daitezke. Biren loa, ordea, batena soilik izaten hasten denean, lurraldez aldatzeko grina pizten da, arrosa ahaztezina. Landareek bezala, harremanek ere sustraiak finko mantenduko dituen lurra behar dute, eta hortik eraikitzen hasi, ez alderantziz, nahitaez hilko baikara, landareak eta gu, heroi ez garen gizakiok, eta jakitun garelako ahaztuak izateko sortu garela, denok baitugu lur iluna gure zain.

Doinu bat ere sortu behar da, atsegina ahal bada, edo isilik egon, isiltasuna kaltegarri bihurtzeko arriskurik ez dagoenean. Doinuari letra jartzekotan, berriz, izan dadila alaia, pozgarria eta baikorra, izan dadila eraikitzailea, osterantzean, iragana labarretik itsasora botatzeko aukera errazegia bihurtzen delako, nahitaezkoa, «Errazagoa baita edozer atzea uztea / edozerk gu uztea baino».

Argonautek itsasoz bidaiatu zuten, itsas zabalean lortu baitzuten bakardade partekatuak multzo egitea. Baina bizitza sua da, eta suak bizitza suntsi dezake. Pasioari neurria hartzea da gakoa, ez dadin itzal, ez gaitzan hil. Horregatik, ez da komeni bidaia bizkortzea, ezta behar baino gehiago moteltzea ere; aitzitik, funtsezkoa da denborari denbora ematea, eta gure burua beldurretik askatzea, «Beldurrak ez baitu begirik egia objektiboak epaitzeko».

Eta patuaren hari saihetsezinaz loturik gauden gisa berean, grabitatearen legeari estekatuta bizi gara gizaki jaio garen guztiok. Zauriak, borondatez egin daitezkeen bezalatsu, borondatez senda daitezke. Zurrunbilo berean aurki daitezke maitasuna eta gorrotoa, denbora besterik ez da behar, eta akaso eguzki guztiz ahaldunaren eta itsasoko jainkoaren babes, bertatik onik ateratzeko eta zoriona aurkitzeko. Guztiaren kausa aurkitzean isiltzen baitira oihu guztiak bat-batean.

Maite Lopez Las Heras (2025eko maiatza)